

Sorguneak ikertegiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute

2009/02/23

Sorguneak ikertegiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara sailak **hitzarmena** izenpetu berri dute **bi ikerketa egiteko**. Ikerketen izenburuak honako hauek dira:

- Gipuzkoar eta Euskal Kulturgintzaren estrategia biderazteko oinarriak.
- Euskarazko kultur sormenaren egitura-sistema Gipuzkoan: diagnostia eta aurrerabideak. (Alde batetik, Gipuzkoako lurraldean eskualdekako kultura-bizitzaren azterketa kualitatiboa egiteko; eta, bestetik, ekimenen ugaritasunak eragiten duen gain-produkzioa aztertu eta beronek sor dezakeen kolapsoa eta atomizazioak dakarren arriskuaren neurraketa ikertzeko).



Ikerketok egiteko **15 hilabeteko epea** izango du Sorguneak ikertegiak; 2010eko maiatza bitarteko epea, beraz. Sorguneak ikertegiaren izenean honako ikerlariok arituko gara: **Jon Sarasua, Andoni Eizagirre, Lorea Agirre, Julen Arexolaleiba** eta **Iñaki Urruzola**. Daitekeena da, gainera, lan-taldea handitzea. Diputazioaren izenean, era berean, ikerketon jarraipena egin eta lankidetzan aritzeko, beste honako kide hauek izango dira: **Francisco Javier Lopez de Landache, Lide Arana** eta **Josean Amundarain**.

Sorguneak ikertegia

Aurten sortu da Sorguneak ikertegia, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoaren baitan, eta beronen osagarri. Graduondoak formazioa lantzen duen bitartean, ikertegiak ikerkuntza landuko du, organigrama honetan ikusten den moduan. Ikerkuntza ez da hutsetik abiatzen. Badira gai honetan ekarpenak egin dituzten ikerlari eta gogoetagileak. Sistematizazio-maila berria emango die ikerkuntza euskal sorkuntzaren jakintza bateratuz. Bestetik, martxan dagoen Euskal Kulturgintzaren Transmisioa ikasketarako bildu eta sortutako jakintza, nahiz bertako partaideek ekoizpen-bidean duten jakintza (ikasleen karrera amaierako proiektuak) ere lagungarri izango da abiaburu honetan. Ikertegiak **best ikerlerro** landuko ditu.